

- **Kultura:** Santa Ageda bezperan musikariak kalera irtengo dira
- **Entzutekuak:** Lokala etxebizitza bihurtu duen bikoteari elkarrizketa

soraluzeko  
hamabostekaria **236.** alea  
2011ko urtarrilaren 28an

# pil-pilean



**Herria bete ume  
Jaiotza kopuruak  
gora egin du herrian**

# EPOCA-GORO

SUKALDE ETA BAINUGELA ESTUDIOA

San Juan Kalea 5. EIBAR • 943 700 216  
www.epocasukaldeak.com



SUKALDEAK • BAINUGELAK • PROIEKTUAK • ERREFORMAK • DISEINUA

## IV. Danbaka Musika Lehiaketa

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



www.danbaka.com



### Ondarroa eta Berrizko Xarma taldeak eraman du IV. Danbaka lehiaketako sari nagusia

Shot! estudioan diskoa grabatuko dute. Oraindik erabaki gabe dago noiz grabatuko duten. Bergarako Lord Witch taldeak, berriz, Debagoieneko talde onenaren saria irabazi du. MUK babestuta, bideo-klipa grabatuko dute bergararrek.

**IÑIGO URIBETXEBERRIA****IRATI TREBIÑO**

## BANKUEN MUNDUTIK IRTEN EZINIK

Gure estreineko berbak dittugu hemen, Pil-pileaneko atarian. Mila gai hitz egiteko, pentsatzeko, eztabaidatzeko. Gaur etxebizitzaren aurreproiektua dut hizketagai.

Egunerokotasuean ingurura begira jarrita, errepideak gainezka, aparkalekurik ez, han eta hemen fabrikak, eta etxeak, blokeak, unifamiliarrak, haundiak, txikiak, zaharrak, ederrak, harrizkoak, pladurrezkoak, lastozkoak, urdinak, gorriak, GRISAK. Etxebizitzaren gaia GRISA izan da azken hamarkadetan jaio garenontzat, GRIS ILUNA. Horrenbeste etxebizitza egin dira azken urteotan jendea bizitzeko baino jendeak inbertitzeko egin direla, espekulatzeko, eta bankuek kreditoak arroz-opilak balira bezala eman dituzte.

Behin ordea, gauzak aldatzen hasi ziren. “Zorioneko” egunak bukatzen hasi ziren eta krisiak bankuetako atak jo zituen, eta bankuek herriko jendearen etxeko atak. Langabezian geratu den jendearen atea, EREz zipriztindutako gizon-emakumeon atak, langileonak.

Ordaintzeari utziz gero, etxea kentzeko mehatxuz jo dituzte hainbat eta hainbat ate. Langile gizajoak berriz lanik izan ezean dirurik ez, ondorioz etxerik ez. Baina lasai, badirudi gure agintari maiteek etxegabekoen arazoari formula bikain bat topatu diotela: etxe hutsik ezingo da eduki hemendik aurrera, etxe huts hori bigarren etxebizitza ez bada, edo salmentan ez badago, besteak beste. Zeinek du momentu honetan etxe mordoxka? Bankuek behintzat bai.

Errezeloa daukat behin etxea galdu zuen horrek maila eman eta etxea kendu zion bankuari bere etxe izandako hori alokatu beharra izango ez ote duen. Hala bazan eta ez bazan, dirua betikoen kalabazan. Muxuk muxutruk danori.

“

**“Hala bazan eta ez bazan, dirua betikoen kalabazan.”**

Iñigo Uribetxeberría

**“2009xan 1255 familixa kaleratu dittue euren etxietatik.”**

Irati Trebiño

”

Kaixo! Azkenian ausartu gara. Zuri laga notsun hasteko arduria eta oin txukun erantzun bihar. Etxebizitza, beraz, hizketagai.

“Etxebizitzaren aldeko itun soziala” ei da agintarixen irtenbide magikua. Uf, agintarixak sozialkerixetan hasten diranian... malo! Hala eta be, zure testuak zirikatuta hasi naiz begira eta baldintzak aurkitu dittut lelen. Badare banketxe eta etxejabientzat, baina baita guretzat be. Etxebizitza duina izateko eskubidia, legiak ezarritako baldintzak betetzen dittuenek soilik eukiko dabe. Eta ni eskubide hori unibertsala zalakuan! Ba ez!

Bestiak beste Etxebiden izena eman eta, zela ez, diru sarrera zehatz batzuk izan biharko dittuzu. Eta hala ez bada? Diru sarrera minimorik ez badaukazu? Bertan erroldatzeko aukerarik emon ez badotsue? Ez al daukazu etxebizitza duin bat izateko eskubiderik? Agian gehixago informatu biharko neuke baina eskubide sozialen murrizketek norantz eruatzen gaituen ikusita nik ez dotsat guzti honi itxura onik hartzen.

2009xan 1255 familixa kaleratu dittue euren etxietatik. Etxebiden izena emongo al zebe danek? Kontuz ibili biharra zeguan okupa, etorkin pobre eta antzeko jendilajiakin, eta oin baita hipoteka ordaindu ezin dabenekin be. Ez dadila inor gobernuan asmo onaz aprobetxatu. Badakizu, enpresarixak herrixan alde lanian dihardu eta gutxien daukana, berriz, oztopo bat besterik ez da. Azken finian, etxebizitza politikan be kriterixo bera erabiltzen dala iruditzen jata, higiezin merkatua eta eraikuntza sektoria sustatzeko egiten dira. Ikusi besterik ez dago Arriolan aurretik Etxebizitza, Lan publiko eta Garraio Sailburu zan Nuria Lopez de Gereñu nun daguan oin.

Honek ez dabe arazorik izango etxebizitzia lortzeko!

Goguan hartzeko

**“Diruak berba egiten dabenen, egixa ixilketan dok”.**

Gotzon Garate, euskal atsotitza



## GUTUNAK

### Udal Gobernu Taldearen oharra

Lehenengo urtarrilaren 12an, PSE-EEko udal ordezkariak udalbatza saioan eginiko eta komunikabide ezberdinetan iragarri izan den baieztapenaren inguruan, alegia, Soralezeko kargu publikoei dagozkien diru kopuruak azkeneko sei urteetan bere horretan utzi direla diona, informazio honen egiazkotasun falta salatu nahi dugu eta bide batez, argitu neurri hau 2008ko urtarrilaren lerarte ez zela aplikatu. Azkeneko igoera aurreko legealdian egikaritu zen, hots, 2007. urtean. Hone-la, hiru urteetan eta egun arte ez da aldaketarik izan, eta zentzu honetan, esateko dago 2011. urtea aldaketa barik aurreikusita dagoela. Egun udaleko kargu publiko bakoitzak 414.30€ kobratzen ditu kopuru finko moduan eta 51.16€ udalbatza saiora

joateagatik. Halere, 2009ko uztailearen 1a geroztik, gobernu taldeko kideek (Ezker Abertzalea eta EA) eurei dagozkien diru kopuruak gutxitu dituzte. Aipatu data horretatik eta legealdia bukatu arte, alkateak eta bere gobernu taldeko kideek honako diru kopuruak jaso dituzte: 372.87€ kopuru finko lez, 46.04€ udalbatza saiora joateagatik eta ezarritako 10.82 euroak barik, 9.74€ batzordeko lehen-dakaritzagatik. Gobernu taldeak aplikatzen duen diru kopuruen jaistea, lau aldiz sartu da udalbatzako gai ordenan, azkenekoz lehenengo urtarrilaren 12an eta oposizioak ezezko botoa eman du horrenbestetan. Espero dugu ohar honek egoera argitzeko balioko duela, jasotako informazioen aurrean.

Udal Gobernu Taldea

### 475.000 euroko kreditu zubia

Urtarrilaren 12an izandako ohiko batzarrean, hirugarren puntuan diruzaintzako eragiketa hitzartzea onartu zen aho batez. Hau da; 475.000 euroko kreditu zubia. Onarpenari atxikituriko ogasun batzordeko txostenak ondorengo zehazten du: "Udal likidezia ezaren arrazoia aurrekontuan jasotako inbertsio gastuen eta diru laguntzetatik sarreraren kobrantzaren arteko ezberdintasunean datza". Honi aurre egiteko, onartu den diruzaintzako eragiketa 475.000 euroko kreditu zubia izan da. Zeintzuk dira Udalak oraindik jaso ez dituen dirulaguntzak. 50.000 euroko dirulaguntza Gipuzkoako Foru Aldunditik futbol zelaiaren zahar berritzea ordaintzeko. Gipuzkoako Futbol Federazioaren 150.000 euroko dirulaguntza futbol zelaiarentzat eta 275.000 euroko dirulaguntza

Izartu II egitasmoko lanak ordaintzeko. Ondorioz udal diruzaintzak daukan defizit iragankorra esaltzea posible egiten du onarturiko eragiketarak. Honen harira herritarrei jakinarazi nahi diegu udal kontuen egoera delikatu dela, honen adibide eskaturiko kreditu zubia. Kontutan edukita 2011 urterako diru sarrerak % 17 an jatsiko direla udal gobernuari eskatu diegu neurriak hartu ditzan gastua murrizteko. Bestalde, gaur da eguna oraindik udal aurrekontuen zirriborrorik ere ez daukaguna. Alkateak aditzera eman duenez aurrekontu proiektua martxoko plenoan aurkeztea da beraien asmoa. Atera kontuak! Informazio gehiago [www.soraluzepnv.com](http://www.soraluzepnv.com).

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

## Oharra:

Pil-pilean Euskara Elkarteko langileok bat egin du pentsioen erreformaren aurka deitutako lanuztearekin. Grebak herrian izandako jarraipenaren berri [Plaentxia.com](http://Plaentxia.com) atarian aurkituko duzue.

# Pil-pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefona:** 943 75 13 04 **e-maila:** [aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com) **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarkeak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## bittartetik



Nerea Isasti

## Greba eta itzalaldia

**H**au ez da pentsatuta nuen kolaborazioa. Goitizen baten atzean izkututzen den tipo bat ezagutzera eman behar nuen baina gehiegi berotu nintzen eta jadanik badauzkadanez nahiko fronte zabalik, artikulua zakarrontzira bota eta berriz hasi naiz. Badago ia ia horrenbeste berotzen nauen beste gai bat. Pentsioen erreforma.

Pentsioen erreforman jasotzen diren neurriak, argi eta garbi langileen aurka eta patronalaren mesedeetara daude bideratuak eta urte luzeetan lortutako eskubideak zapaltzen dituzte. Kotizazio urteak handitu, erretiroa hartzeko adina atzeratu eta dirulaguntzak murriztu.

Kaxan dirurik ez dagoela saldu nahi digute. Baina esaten ez dutena zera da: 1999an ez zegoen Gizarte Segurantzaren superabita gordetzeko kaxarik eta dirua heldu ahala, desagertu egiten zen. Orduan klase politiko eta enpresariari ondo iruditzen zitzaion pentsio sistema. Betikoa; krisiaren aitzakiarekin diru publikoa pribatizatu nahi dute nola edo hala. Izan ere, Estatu Espainiarrean banketxeek ez dute behar bezain beste negozio egiten pentsio pribatu planekin.

Ah! Azken gauza bat, otsailaren 15ean 22,00etan ITZALALDI OROKORRA, Iberdrolaren prezio igoera salatzen. Zulotxo bat egin diezaiokegu.

## (((ENTZUTEKUAK)))

### Jone eta Iker, etxepe bat etxebizitza bihurtu duen bikotea

Jone Iriondok eta Iker Salaberriak lokal arrunt bat etxebizitza bihurtu zuten orain bost urte, eta gaur egun bertan bizi dira, alaba txikiarekin. Gazteek etxebizitza izateko aukera moduan ikusten dute etxepeetako lokalak etxebizitza bihurtzea eta dagoeneko badira hainbat herritar bide berari eutsi diotenak.

#### Noiz bururatu jatzuen etxepia etxebizitza bihurtzia?

Ikerren gurasuak gure eraikineko 3.pisuan bizi dira eta gazte-gaztetatik gustatu jakon oin gure etxia dan lokala. Bertan etxebizitza egiteko baimenik izan bare lokala erostera arriskatu ginan, bagenekixalako etorkizun batian bertan gure etxia egingo genduala.

#### Ez zan aukera arriskutsua izan?

Arriskutsua baino aukera merkia zala ikusi eta aurrera egin genduan. Egixa esateko, inguruko danak kontuz ibiltzeko esaten zoskuen. Oin 10 urte erosi genduan lokala eta bost urte daroiguz bertan bizitzen.

#### Zuen etxia baina ez da etxepe bat.

Ez, etxepia baino, lelengo pisu baten antzera dago alturaz. Eraikinian guztira zazpi pisu egin zituen baina sei egiteko baimena zeukela eta, etxebizitza pilotu moduan erabiltzen zebe gure etxia. 89 metro karratu inguru daukaz eta paretik bareko lokal karratu bat zan hasieran. Baimenak lortu eta obria egittiari ekin gontsan.



Etxepea duela hamar urte erosi zuten.

#### Baimena lortzeko zein baldintza bete bihar izan dozeuz?

Gerora gure etxia etxebizitza moduan saldu ahal izateko tramitiak egin genduzen hasieran. Horretarako legia onartu eta udaletxera jo genduan, informazio eske. Bertan proiektua egiteko baldintzak jarri zoskuezen, logela danak leihuakeukitzia, keiandako urteeria, neurri zehatzak eta sarrerria ataittik ipintzia. Arkitektuak proiektua egin, udalian aurkeztu eta oniritzixa jaso ostian, etxebizitza moduan izendatu zebe gure etxia.

*“Gaztiondako etxebizitza aukera merkia dira etxepiak”*

#### Azkenaldixan asko dira bide berari jarraitu dotsenak. Gomendixorik?

Etxepietan lokal mordo bat dare eta gaztiendako etxebizitza merke bat topatzeko aukeria ikusten dogu. Azkenaldixan legia lokalen jabien alde jarri da eta honek be asko garestituko dira datozen hilabetietan.

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

**HNOS. BENITO ANAIAK**

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

## Emakumeentzat jardunaldi arrakastatsuak

Azaroaren 25ari begira, “Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren” harira antolatutako ekitaldietan partaidetza handia izan dela nabarmendu du Yoana Azpitarrek, udaleko berdintasun teknikariak. Parte hartze txikiena “Beldur barik” elkarretaratzean izan zela nabarmendu du. Bestalde, emakumeen izaera indartzeko ekimenek arrakasta handia izan

duela aipatu du. Guztira herriko 41 emakumek formazio gehigarri jaso dute. Berdintasun sailak indarra hartu duela uste du eta hementik aurrera egingo diren ekitaldietan parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi die herritar denei. Emakumeen Batzordean parte hartzeko, berdintasuna@soraluze.net helbidera e-posta bat idatzi besterik ez da egin behar.

### Emakumeen Topagunea berriz bilduko da

Soraluzeko Emakumeen Topagunea otsailaren 2an bilduko da berriz, azaroaren 25eko kanpainaren balorazioa egin, diru-laguntzak aztertu eta “Emakumeen Nazioarteko Eguna” prestatzen hasteko, besteak beste. Bilera, arratsaldeko 19:00etan izango da udaltxeko aretoan. Yoana Azpitarte, Berdintasun Teknikariak, herriko emakume denak gonbidatu nahi ditu bertan parte hartzera.



Irudian autodefentsa ikastaroa.

### Luis Carreterorentzat lehen saria

Iñigo “Plaentxi” zenaren omenezko errifan zozketa egin zen aurreko patuan. Lehenengo saria Luis Carreterok jaso du eta telebista eta bizikleta eraman ditu etxera besteak beste. Bigarren zenbaki saritua 2055a izan da eta Eibarren saldu dela uste dute antolatzaileek. Hirugarrena aldiz 1124 zenbakia izan da, herrian bertan saldua. Irabazleek 15 eguneko epea izango dute sariak jasotzeko.



### Misio taldeak pateak salduko du

Iaz egin zuten moduan, Soraluzeko Misio Taldeak pateak salduko du hileko lehenengo eguenetan, kontzejuean. Ordutegia ere zehaztu dute: goizeko 9:00etatik 13:00era bitartean izango dute postua. Jasotako dirua Haitira bidaliko dute, iaz lurraldea astindu zuen lurrikarak sortutako kalteak gutxitze aldera.

### KZgunea goizez zabalduko dute

Martxorako ordutegia prest du Aitor Madrid KZguneako arduradunak. Internet eta ikastaro gunea goizez zabalduko da hilaren 3an, 10ean, 17an eta 24an 9:00etatik 13:00era bitartean. Informazio gehiago: 943 75 30 45 edo tutor.soraluze@kzguna.net.

### Tranpa ilegalak mendi inguruan

Debekatuta badaude ere, oraindik, animaliak harrapatzeko tranpa ilegalak herri inguruak betetzen dituzte. Irudiko Azkonarra Mendiolan aurkitu zuten aurreko domekan, lakio batez harrapatuta. Odoletan zegoela basozainari deitu eta honek askatu zuen, baina sendatu ez zuela kexu dira argazkia jaso zutenak.



Iturria: Roke Akizu

**ARRANO**  
tabernia

etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

etxera

**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Balategieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**

## Erdialdea otsailetik aurrera oinezkoentzat izango da

**Torturak salatzeagatik 5.000 euroko isuna**

B. E. eta G. S. soraluzetarrak otsailaren 10ean Eibarko epaitegian deklaratu beharko dute. Iaz Torturaren Aurkako Egunaren harira kotxeke megafonia herrian zehar pasatzen zihardutela Ertzaintzak atxilotu egin zituen bi lagunak. Bakoitzari 5.000 euroko isuna ordaintzeko eskaera egin diete. Bestalde, otsailaren 13a Torturaren Aurkako Eguna izango da eta Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimendua, 2010. urtean atxilotutakoentzat tortura salaketan zenbatekoa jakinarazi du: 63 tortura salaketa egin ziren iaz, horietatik 32 irailatik abendura bitartean eginiko bederatzi sarekadetan salatutakoak.



**Lehen sorospena egiten ikasteko kurtsoa**

Elgoibarko Gurutze Gorriak Lehen Sorospena egiten ikasteko ikastaroa eskainiko du martxoaren 25etik apirilaren 25era bitartean Elgoibarren, Aita Agirre plazan duten egoitzan. Kurtsoak 40 orduko iraupena izango du eta ordutegia honakoa da:  
Barixakuetan: 18:00etatik 21:00etara  
Zapatuetan: 9:00etatik 14:00ra eta 15:30etik 17:30era bitartean.  
Ikastaroan parte hartzeko 120 euro ordaindu beharko dira. Informazio gehiago 661 260 557 (Xabi) telefonoan edo elgoibar.formacion@cruzroja.es helbidean.

Herriaren erdialdea oinezkoentzat bihurtzeko proposamenak argia ikusiko du datorren hilabetean, nahiz eta oraindik udalak ez dakien ziurzein egunetan; sarrera mandoak aktibatu eta probatzeko lanak bukatutakoan jarriko dute indarrean aipatutako proposamena. Modu horretan, ibilgailuei herriaren erdialdean ibiltzeko ordutegia murriztuko zaie. Herritar batzuen partetik izandako gaizki ulertuak direla eta, udalak jakitera eman ditu urrutiko agenteak eskatzeko bete behar diren baldintzak. Horretarako eskatzaileak negozio lokal baten titularra izan behar du, baldin eta Soraluzen erroldatuta badago eta ibilgailuen zerga Soraluzen ordaintzen badu.

**Larrialdiak salbuespenak izango dira**

Bestelako kasuetan, egoeraren arabera onartuko dute ordutegiz kanpo ibilgailuek oinezkoentzako gunea zeharkatzea, hau da, larrialdi kasuetan (Osakidetzak, Gurutze Gorriak, Suhiltzaileak eta Ertzaintzak) beharrezkoa badute eta zamalan bereziak direnean (Udaltzaingoari eskatuz eta alde zuzeneko irizpideak betez). Bestelako kasu batzuk, kasuan kasu aztertuko direla jakinarazi du Jose Luis Arizaga alkateak. Informazio gehiago: 943 75 30 43 telefonoan.



Udalak mandoak eskatzeko baldintzak jarri ditu



**Etxabe Harategia**  
Euskal txahalkia Bildotsa  
Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak  
T. 943 75 23 75

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK  
GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

# Mundura jaio eta ezin kabitu

Jendeak kalean bolo-bolo darabilen gaietako bat ume jaio berrien kopurua Soraluzen igotzen ari dela da. Sentsazio soila da ala fundamentua duen baieztapena? Horri erantzuten saiatuko gara hurrengo erreportaian.

Egoera ekonomiko "larria" bizi dugun honetan bada gizartearen sektore bat lehen begiratuan behintzat, krisirik igarri ez duena. Herriko kaleak eguerdi partean ume-kotxetxo betetzen dituzten arrazoiaz ari gara, jaiotzetaz alegia.

URTEA	JAIOAKOAK	HILDAKOAK	BIZTANLEAK
1996	22	20	4508
1997	14	29	4377
1998	32	17	4340
1999	30	14	4321
2000	27	28	4264
2001	28	19	4174
2002	30	21	4157
2003	35	23	4145
2004	44	23	4153
2005	29	20	4141
2006	39	27	4097
2007	43	20	4061
2008	30	31	4031
2009	42	25	3990
2010	40	19	4003

Iturria: Udaleko erregistro zibila.

Datuek berresten dute kaleko ustea. Herriko erregistro zibileko datuak aztertuz gero, 1996an jaiotza tasa 4'88 zen; 2010ean 9'99 izan da. Beraz, 15 urtean jaiotza tasa ia bikoiztu egin dela baieztatu daiteke.


## Umeei zuzendutako negozio berriak

Soraluzen badaude goranzko joera horri jarraitzen dioten adibideak. Kalebarrenen Kulunka Goxokiak goxodenda duela hilabete eskas zabaldu dute. Bertako behargina da Ruben García. Bere ustez, herrian "baby boom"-a egon da eta hala igarri du: "Guk umea duela 4 urte izan genuen eta gure inguruan perretxikoak moduan hasi zen jendea umeak ekartzen. Orain astebururo igartzen dut gorakada hau, denda zoramena izaten da eta".

**Ruben Garcia:**  
"Asteburuetan denda zoramena izaten da"



Ruben Garcia pozik dago goxoki dendarekinzibila.





Nuria Murok aurrentzako arropa denda zabaldu zuen iaz.



**Roke Akizu:**  
**“Epe motzean, dirurik gabe, ez dago leku faltarena konpontzerik”**

Gabolats kalean, “Kilika haur moda” denda mar-txan dago iaztik. Nuria Muro Kilikako dendaria langabezian geratu zen. Negozio berri bati ekiteko abagunea zela ikusi zuen eta Debequesaren laguntzarekin umeei zuzendutako denda zabaltzea erabaki zuen: *“Ikusi nuen ez zegoela umeendako erropa dendarik eta horregatik egin nuen aukera hau”*. Denetarik saltzen du, 3 hilabetetik 12 urte bitarteko umeendako erropa, oinetakoak, jolasak eta autorako osagarriak ere bai. Baita etxeko de-koziorako artikuluak ere.

### Leku falta Plaentxi Ikastetxean eta Haurreskolan

Egoera honen aurrean batzuek abantaila ikusi dute, baina herrian beste sektore batzuk kinka larrian ipini ditu. Plaentxi Herri Ikastetxean leku falta dute hainbat eremutan, geletan, jantokian, jolastokian (obren ondorioz parke erdia dute) eta bakarkako laguntzak emateko gunerik ez dute: *“Geletan ikasle kopuruak gora egin eta azkenaldian matrikulatu diren ikasle gehienak etorkinak izanik, irakasleriari klaseak euskaraz eta gazteleraz prestatzea suposatzen dio; honek dakarren ondorio guttiakin; ikasleei eskaintzen diegun arreta ez da guk nahiko genukeen bezalakoa”* azaldu dute irakasleek.

**Plaentxi Ikastetxea:**  
**“Ikasleei eskeinitako arreta ez da nahiko genukeena”**

Diotenez, ipini dira harremanetan udaleko eta hezkuntzako arduradunekin, ikastetxean ditzuten premiak jakin-arazi eta konponbidea topatzeko.

Haurreskolan ere antzera. Lorea Zurutuza hezitzaileak dio igarri duela lau urte hauetan ume kopuruaren gorakada egon dela. Eskaintzen ditzuten 21 plazatik 20 hartuta daude eta aurrematrikuletan plaza guztiak bete egingo direla uste dute. Hala ere, eurak ondo moldatzen dira dauden lekuan: *“Azpiegitura aldetik gustora gaude, hainbat gela ditugu ekintza bakoitza burutzeko. Haurreskola bera haunditzea litzateke onena, baina hori ez dago gure esku”*.

### Kanpo finantzaketan zain

Dirurik gabe azpiegitararik ezin da egin, eta hori da Soraluzeko Udalak momentuan duen arazoa. Roke Akizu Hezkuntza Saileko zinegotzia jakinaren gainean dago: *“Badakigu egoera honek arreta berezia behar duela. Momentuan kanpo finantzaketa bila gabiltza, hezkuntzako azpiegitura guztiak kolokan daudelako. Jantokia txiki geratuko da segituan, haurreskola ere beteta dago... Esan behar da dirurik gabe epe motzean ez dagoela konponbide posiblearik. Hala ere, irtenbide batzuk aztertzen ari gara eta edozein proposamen, ekarpen jasotzeko irekita gaude”*.



# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Euskal Herria egoera politiko berri baten aurrean dago. Ezker abertzaleak maiatzeko hauteskundeetan aurkezteko konpromisoa hartu du. Estatu bere aldetik, hasi da azken hauek emandako urratsak aitortzen. Kalera irten eta zuen iritzia jaso dugu.

## Zein da zure iritzia egoera politiko berriaren gainean?

**GILLERMO ALBERDI**  
Jubilatua



**E**sperantza onakin ikusten dot. Estatuan aldetik egiten dabizen atxilotak bengantza modukuak dira. Ezer bariko jende mordu eruan dabela demostratu da. Ezker abertzalian pausuak onak dira eta gauzia benetan doian seinale. Oso positibua izan da.

**MARIA AZULA**  
Tailarreko langilia



**B**ai, beti da ona. Danon onerako da eta danon artian konpondu biharreko arazua da. Daguaneke oso luzerako doia eta neretako, egoeria konpontzen dan bitartian ondo ikusten dittut emandako urratsak.

**ANA LETE**  
Irakaslaria



**K**onpondu biharra dago eta horretarako, alde danak emon bihar dabe zer edo zer. Alde batek daguaneke emon dau pausua; oin bestiak, Gobernuak emon bihar dau.

**YON LARRAMENDI**  
Administratibua



**O**ndo goiaz baina urte dextente falta dira hau konpontzeko. Ez daukagu pasatzen danan informazio guztia eta nahi dabena kontatzen dabe. Ezker abertzalia intentzino onenakin juanda be, dana ez dauka bere esku. Ez dabe aurten legezkatuko.

Eman zure iritzia sarean



 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**  
Hotzian eta beruan jotako tornilluak  
Errekalde 21  
20590 SORALUZE  
T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

**JUAN MARI**  
ARRINDEGIA  
943 75 24 40  
MERKATU PLAZA  
25. URTEURRENA  
ESKERRIK ASKO PLAZENTZIATZARREI  
GUCAN IZENDAKO KONFIANTZAGATIKI



  
*Disenua eta Sormena*  
Poligono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaia  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434  
Jon Azkorbebeitia Txurruka  
K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**  
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



### Xabier Lete apirilean omenduko dute

Euskal idazle, kantari eta poeta gogora ekartzeko ekitaldia apirilaren 9an Zinean izango da. Hala erabaki zuten urtarrilaren 15ean Allegro Elkartean batu ziren 25 herritarrek. Ekitaldia, herriko musikari batzuek errezitatutakoak 12 kantuz osatuko dute. Kantu birtaetan bere bizitzan garrantzia izan duten kanpoko poeten itzulpenak eta kultur arloan eginiko ekarpenak oholtzara ekariko dituzte. Hurrengo bilera otsailaren 13an izango da 19:00etan Allegro Elkartean.

### Aratusteak gertatzeko batzarra

Urtarrilaren 31n Aratusteetako egitaraua antolatzen hasteko bilera egingo da 19:00etan Allegro Elkartean. Atxolin Guraso Elkartea, Pil-pilean, Kukumixio, Dantza Taldea... eta beste hainbat talde batuko dira bertan. Ateak nahi duenarentzat zabalik daude.

### Urratsekoak ere aratusteetan murgilduta

Aratusteetan ohikoak diren dantzak prestatzen dihardu dantza taldeak; hala nola, polka, axuri beltza, makildantza edo Behe Nafarroako martxa. Entseguak barixakuetan egiten dituzte, 19:30etik aurrera Goiko Eskolan eta izena eman nahi duenak bertara jo beharko du.

### San Blasak bedeinkatzeko ospakizuna

Luis abadeak jakinarazi du otsailaren 3an goizeko 11:30ean elizan hasiko dela San Blasak bedeinkatzeko ospakizuna.



## Santa Agedak herriko musikariak batuko ditu

Santa Ageda Egunaren bezperan, otsailaren 4an, urteroko ohiturari heldu eta herriko musikariak kalera irtengo dira, herriko bazterrak kantuz eta koplaz betetzera. Musika Eskolakoek arratsaldeko 18:30ean hasiko dute kalejira alai Santa Ana kaletik. Eskolako trikitilariak, panderojoleak, abesbatzakoek eta gainontzekoikasleek hartuko dute parte. Ezoziko Ama abesbatzak ere kalejira egingo du egun berean eta hona aurtengo berrikuntza: arratsaldeko 19:15ean Musika Eskolako kalejirarekin bat egin eta elkarrekin hiru koplakantatuko dituzte Plaza Barrixan. Horrela bukatuko dute kalejira Musika Eskolakoek eta abesbatzakoek berriz, beraienari hasiera eman.

### Santa Eskean bost bertsolarirekin

Otsailaren 5ean, Santa Ageda Egunean, goizeko 8:30ean Ira-txo goxodendaren paretik abiatuko dira hainbat koplari egun guztian baserriz baserri eskean joateko. Bost bertsolari izango dituzte lagun: Ainhoa Agirreazaldegi, Jon Martin, Unai Gaztelumendi, Jokin Labaien eta Eneko Beretxinaga. Trikitilariak berriz, Unai eta Enaitz izango dira. Santa Eskean atera nahi duenak Pil-pileanera deitu (943 751304) edo euskara@pilpilean.com helbidera idatz dezake.



Santa eskean baserriz baserri ibiliko dira bertsolariak

### Xarma da Danbakako IV edizioko irabazlea

Urtarrilaren 14an ospatu zen Danbakako IV. edizioko finala. Xarma ondarrutarrek jaso zuten sari nagusia eta diskoa grabatuko dute hemendik gutxira. Debagoieneko talderik onena ostera, Lord Witch izan da. Despreziokoen freskotaketa nabarmendu dute epaimahaikideek baina finalera heldu arren, ez dute saririk jaso.



Iturria: Danbaka

**MABE**  
LEAPAINDEGIA

**ESTETIKA**  
**SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE

**Harategia**

Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu

**HARATEGIA**

Kalebarren 3. Soraluze  
Tel. 943 75 12 49

# Errealak soraluzetar asko batu zituen Ezozin



Soraluzeko zaleak Errealeko jokalariekin

Urtarrilaren 18an Errealak Ezoziko futbol zelaian entrenatu zuen. 10:30ak aldean azaldu zen txuri-urdinen autobusa eta ordurako harmailak beteta zeuden. Autobusetik banan-banan agertu ziren klub gipuzkoarreko jokalariak eta ordezkarriak. Gero talde argazkia atera zuten jarraitzaile, Sorako ordezkarri eta beste hainbeste jenderekin.

## San Anton Pilota Txapelketako txapel nagusia Elgoibarrera

San Anton Pilota Torneoko Nagusien finala jokatu zuten Jauregi eta Atxotegi herritarrek Uriarte eta Loiola Elgoibarko bikotearen aurka. Iaz ez moduan, aurtengo norgehiagokan elgoibartarrak nagusitu ziren eta Uriartek eta Loiolak 22 eta 13 irabazi zuten. Bi bikoteek gogor eutsi zieten fina-

laren lehenengo 12 tantoei. Bigarren zatian baina, elgoibartarrek aurrea hartu zuten eta hiru tantoko aldearekin irabazten hasi ziren. Lehia Uriartek eta Loiolak irabaztea lortu zuten, 9 tantoko aldearekin. Loiolak eraman zuen finaleko pilotari onenaren saria.

### Iñigo Plaentxiri omenaldi hunkigarria

Aurreko zapatuan Ezoziko futbol zelaia jendez eta emozioz bete zen, Iñigo "Plaentxi" zena omentzeko ekitaldian. Iñigoren semeak aureskua dantzatu zien bere senide eta lagunei eta jarraian, futbol taldeek eskainitako oroigarriak jaso zituzten. Ekitaldia, Erreal eta Athletic taldeetako beterranoen derbiarekin bukatu zuten, binako emaitzarekin.



Iturria: Carlos de Cos

## EMAITZAK

### PELOTA

#### Eskuz Binakako IX. Txapelketa

Mtz de Irujo – Merino II	22
Gonzalez – Laskurain	10
Olaizola I – Beloki	22
Gonzalez – Laskurain	16

#### San Anton Txapelketako final nagusia

Atxotegi – Jauregi	13
Armendariz – Bergara	22

#### Mungiako Txapelketa

Atxotegi – Jauregi	22
Armendariz – Bergara	19

### FUTBOLA

#### Igoera fasea

Beasain S.D. – Sora (Erreg.)	1-0
Landetxa – Sora (Erreg.)	0-5

#### Kopa

Sora (Erreg. B) – Eibartarrak B	2-2
Sora (Erreg. B) – Aretxabaleta	1-1
Zestoa K.B. – Sora (Jub.)	4-1
Sora (Jub.) – Bergara B	3-1
Sora (Kad.) – Ilintxa	1-8
Aloñamendi – Sora (Kad.)	7-0

## AGENDA

### PELOTA

#### Zapateria 29, 17:00etan Labrit pilotalekuan

Gonzalez – Laskurain
Bengoetxea VI – Patxi Ruiz

### FUTBOLA

#### Zapateria 29, 17:00etan Ezozin

Sora (Erreg.) – Usurbil F.T

#### Zapateria 29, 17:30ean San Migelen

Mutrikurrak SBB – Sora (Erreg. B)

#### Zapateria 29, 11:00etan Ezozin

Sora (Kad.) – Aretxabaleta

#### Domika 30, 16:00etan Bikuñan

Ilintxa – Sora (Jub.)

## Javier Alberdi



Baimendutako harategia  
Euskal Okela  
Carniceria autorizada

Erreal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

## Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.  
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

## ZORION AGURRAK



**Zorionak amama!**  
Otsailan 71 urte betetzen ditzuzelako! Zure seme, bilobe eta errainan partez, muxu haundi bat!!



**Zorionak Enara!!**  
Urtarrilan 10ian 28 urte!! Muxu potolo eta besarkada haundi bat kuadrila guztixan partez!



**David eta Onar**  
Urtarrilan 31n 37 urte eta urtarrilan 17xan 9 urte betetzen ditzuzelako, zorionak Pau eta Ainhoan partez!



**Domentx eta Lorea**  
7 eta 6 urte!  
Muxu haundi bat!  
Etxekuen partez!

### jaiotakoak

LARISA-IRINA MEMET  
JARE VAQUERO PEREZ  
JUNE RAMOS DEL CAMPO



### hildakoak

LORENZO OREGUI OREGUI  
JOSEFINA PARDO RANERO



## LEHIAKETA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria:** Baserriko produktuz betetako 30 euroko otarra.



## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea:** Aintzane Astigarraga

► **Mireia Gabilondo**  
Bolia tabernako jabia da aurreko aleko argazkixan agertzen dan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu [aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com)

**TXURRUKA**  
**JATETXEA**

www.txurruka.com  
943 75 15 81

**Soraluzeko Kooperatiba Elkarte**

**100** URTEAK 1910 - 2010

943 75 13 45

**Aras**

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 1803  
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21  
50 Posta Kutxatila  
20590 Soraluze

**TXOKO KAFETEGIA**

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. Tel. 943 75 17 89

# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Nora Arizaga

## ABADIÑON SAN BLASETAN

Laukote honek Abadiñon ospatu zeban 1925eko San Blas Eguna eta erretratu hau bertan etaratakua da. Otsailan 3an San Blas opilak bedeinkatzeko ohitturia aspalditik datorren usadixua da. Gaur egun San Blasak herrixan bertan bedeinkatzen ditte Luis abadiak baina sasoi hartan, herritar batzuk Abadiñoraino juaten ziran opilak bedeinkatzera eta horren aitzakixan, erromerixan egun ederra pasatzera.

### Argazkixan:

**Goixan, ezkerretik eskumara:** Telesfora Arizaga †, Tiburcio Larrea † eta Raimunda Arizaga (Bolia) †.  
**Behian:** Jose Laskurain †.



**JOSEFINA PARDO RANERO**

*Berrito itzuliko balitz  
iragan denbora arrotza  
berdin kontsumi nezake  
banilla gozo artean,  
itsaso urrun batetan  
irudimena galdurik  
udaberriko euritan  
larrosak pizten ikusiz.*

Eskerrak eman nahi dizkizuegu momentu latz hauetan gure ondoan egon zareten senide, lagun eta herritarrei.

# “GUK PROBATU DUGU JADA”

Euskaltelen Zuntz Optikoa azkenean Plaentxira heldu dela eta, Lolirekin, Muguruza Garcia familiako amarekin, hitz egin dugu. Bera izan da Zuntz Optikoa kontratatzen lehenetako bat.

**G: Oso eder eta boteretsu ikusten zaituztet.**

E: Eskerrik asko. Egia esan, etxean Zuntz Optikoa dugunetik, berrituta sentitzen gara. Inoiz ez bezala ari gara telebistaz gozaten. Izan ere, Zuntzarekin oso ongi ikusten dugu, lehen baino askoz hobeto. Euskaltelen TB Digitalarekin ditugun kanal guztiak ahaztu gabe. A zer kalitateal

**G: Zein dira zuen katerik gustukoena?**

E: Bada, nik telesailak ditut gustuko. Fox katearen zale amorratua naiz; telesail piloak ditu. Bestalde, pelikula asko ikusten ditut: klasikoak eta modernoak. Nire senarrak, nola ez, futbola ikusten du. Liga osoa, kopa, atzeriko futbola... Ez nekien hainbeste futbol zegoenik! Eta haurrek kate ugari dituzte aukeran.

**G: Eta, Internet? Esaten duten bezain azkarra da? Irakurri dudanez, Euskaltel da Euskadiko Banda Zabaleko operadorearik azkarrena eta kalitate onena duena.**

E: Interneten, hegan egiten dugu. Ikusi besterik ez duzu. Eta 50 mega arte kontrata dezakezu! Gainera, WIFI jarri dīgute Euskaltelekoek. Inguruan kablerik ez izatea oso eroso da. Eta oportetako argazkiak lgotzeko... zer esanik ez. Segituan lgotzen dira.

**G: Baina hain abiadura handiko Internet izatea eta telebista zoragarria izatea nahiko garestia izango da, ez?**

E: Guretzat, ez. Orain duten sustapenarekin, prezio ezin hobean lor dezakezu. Gainera, mugikorretan ere abantailak ditugu. Familia Planarekin, minutuan zero zentimoan hitz egin dezakegu gure artean. Eta, entzun dudanez, odirekoek ere deskontuak dituzte.



**G: A, bai? Esan, esan...**

E: Bai. Uste dut 65 urte baino gehiago izateagatik deskontuak dituzula telefono finkean eta mugikorrean.

**G: Eta zaila al da Zuntzera aldatzea?**

E: Egia esan, ez duzu ezer egin behar. Euskaltel arduratzen da guztiaz. Telefono-zenbaki bera izango dugu, eta instalazioa ongi eta azkar egin ziguten. Eta, gainera, dena doan. Zuntzaren indarra probatu nahi genuela esan genien, besterik ez. Eta, orain, ikusi!

**G: Bada, konbentzitu nauzue. Inbidia ematen didazue, zuek hain gustura ikusita. Nik ere Zuntzaren indarra nahi dut.**

E: Oso ongi. Joan bizkor, bizkor. Zoaz Euskaltelek Santa Ana kalean duen saltokira edo Eibarko dendara, eta haiek arduratuko dira guztiaz.

“Zuntzmobilean” eramango zintuzket, baina oraintxe estreinatuko dute Karate Kid Euskaltelen telebistan, eta ez dugu hura ikusi gabe geratu nahi.

# IRITSI DA PLAENTXIRA ZUNTZAREN INDARRA

50M-ko  
DUOA

TB  
Digitala

**"Nabarituko duzu"**

Muguruza García familia,  
Plaentxiko bizilagunak

Informa zaitez Plaentxirako  
eskaintza bereziaz  
Euskalteleko autobusean,  
edo Santa Ana kaleko 22.  
zenbakian.

 zuntzOptikoa

  
euskaltel  
zuretzat